

ZURE IZENEAN

AMAIA
IRIONDO
ARISTONDO



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

AMAIA IRIONDO ARISTONDO

zure izenean

- Barkatu, Antton. Badakit ez duzula nahi izaten lanorduetan deitzerik, baina ez dakizu zer aurkitu dudan! Uste dut bilatzen ari garena, azkenik, topatu dudala! Zoragarria da! Guk ezinbestekotzat jarritako baldintza guztiak sobran betetzen ditu eta, gainera, guk aukeratutako zonaldean dago!
- Ondo, Rocio, baina, hori esateko deitu didazue? Lasai egon. Iluntzean, lanetik etxera heltzen naizenean, patxadaz hitz egingo dugu eta...
- Ez, Antton, ezin dugu itxaron! Iragarkian argi eta garbi jartzen du ahalik eta arinen saldu nahi dutela. Ez dakit, baina seguru beste leku batera joan behar dutela bizitzera edo diruaren premia itzela dutela arrazoiren batengatik edo... Beno, nik zer dakit, eta gainera hori ez da gure kontua! Baina, Antton, azkar ibili behar dugu, horregatik deitu dizut. Ulertzen? Jakin nahi dut bihar edo etzi haiekin geratu ahal garen etxea ikusteko edo kanpoan egongo zaren. Ez nuke nahi inor aurreratzerik. Ulertzen? Luzamenduetan hasten bagara berandu izango da, seguru. Horrez gain, ez dago bitartekorik, zuzeneko salmenta da eta eskegi dituzten argazkiak ere ikusi ditut, hamahiru argazki, eta ikusi dudana guretzat propio egindakoa dela esango nuke, Antton. Ez dugu hoberik aurkituko!
- Horrela bada, zer esango dizut? Hain egokia iruditu bazaizu, jakina, deitu eta adostu hitzordu bat. Bihar eta etzi, behintzat, ez daukat ezer Bilbotik kanpo; hortaz, ez galdu denbora gehiago nirekin berriketan eta deitu, lehenbailehen deitu, eta afalorduan esango didazu zertan geratu zaren. Bai, konforme! Aurrera!
- Ai, zen ondo! Oraintxe bertan hots egingo diet eta gero erakutsiko dizkizut argazki guztiak. Ikusiko duzu, zu ere zurtz eginda geratuko zara! Beno, maitti, orain segi lanean, baina ahalegindu zaitetz gaur, behintzat, lar berandu ez etortzen, bai? Badakizu: zain izango nauzu; gero arte, Antton!
- Bai, bai, Rocio, gero arte!

Antton heldu zenerako, banituen Saint Emilionetik ekarritako ardo-botila bat ur hotzetan eta lupina eder bat labean sartuta. Biontzako festa txiki bat antolatu nahi izan nuen gure apartamentu ilunean. Izan ere, aspaldiko partez, pozik nengoen eta nahi nuen Anttonek alaitasunaren usaina nabaritzea etxeko atea ireki bezain pronto.

Ez nuen pentsatzen Bilbon bizitzea hain zaila egingo zitzaidanik. Ez nuen pentsatzen Sevillan egiten nuen bizimodua eta hemengoa ezberdinak izango zirenik ezta gogaituta ninduen familiaren falta hainbestekoa izango zenik ere. Ez nuen pentsatzen topikoek adierazten zutena betetzen zenik ezta iragarri zizkidaten zeruko gristasun tematiak, hezetasunak eta neguaren luzeak, apurka-apurka baina barru-barruraino, tristatuko

nindutenik ere. Ez nuen pentsatzen ia-ia zimeltzeraino helduko nintzenik eta susmoa dut Anttonek ere ez zuela uste hain lore delikatua nintzenik.

Ez diot Anttoni ezertxo ere leporatu behar, hona etortzeko urratsak, gehiegi pentsatu gabe, nik neuk eman nituelako eta hark begi onez onartu baino ez zituelako egin banan-banan. Uste dut ezin zuela sinetsi ni berarekin maiteminduta egon nintekeenik, dena bertan behera utzi eta berarekin Bilbora etortzeko besteko zoramena senti nezakeenik. Uste dut bere baitan mirari zerutiar bat zela guk biok bikote bat osatzea, ni goi-mailako liga batekoa izango banintz bezala tratatzen ninduelako etengabea eta haren begiradan lilura itzela antzematen zelako ni hurreratzen nintzaion bakoitzean. Horregatik, ez zidan gure harremanaren kontura ez kezkarik adierazten ez galderarik egiten. Badaezpada ere!

Behin baino gehiagotan neure buruari aitortu behar izan diot aldaketa baten premian egotea izan zela Anttonekin hona etortzeko benetako arrazoia: betiko bizimoduak, betiko lekuek eta betiko lagunek erabat aspertuta nindukaten. Nire lagunik onenak bikotean eta bikotearentzat bizi ziren, are gehiago, haietako batzuk mundu malapartatu honetara umeak ekartzen ere hasiak ziren eta, ondorioz, haien eguneroko unibertsoan ez zuten beste orbita bateko planeta galdurik behar. Gainera, lanean hasi nintzenetik lantegi berean jarraitzen nuen. Ez han egiten nuen lanak asebetetzen ninduelako edo erabat premiazko sentitzen nintzelako, baina han segitzen nuen egunerokotasunaren gurpilari kateatuta. Eta, errematerako, neba-arreba guztiek banan-banan alde egin zutenetik gurasoekin bakarrik geratu nintzen. Total, hogeitazko urteko gaztetxoa izatetik hogeita hamabost urteko emakumea izatera pasatu nintzela di-da batean, denbora zelan pasatu den igarri ere egin barik.

Antton askotan etortzen zen Bilbotik Sevillara eta bertan aste osoko egonaldiak egiten zituen. Renaultek balazta-sistema arinagoa eta seguruagoa jarri nahi zion modelo berri bati eta Antton zen proiektu horren buru; horregatik, probak eta doikuntzak egin behar ziren bakoitzean, kalkulu berriak egiten edota probetarako maketak sortzen gure artean izaten genuen. Lau lagun baino ez ginen proiektuaren partaideak. Ni alderdi ekonomikoaz eta finantziarioaz arduratzen nintzen, hori dela eta, behin baino gehiagotan, mahai buelta berean elkartu behar izaten ginen luzatzen eta luzatzen ziren bilera astunetan. Eskerrak, horien ostean, normalean, laurok afaltzen amaitzen genuela. Entzute handiko jatetxeak aukeratzen genituen eta, gehienetan, Anttonek onesten zuen ardoari esker laxatzen ginen, balazta-sistemak eta gastuak ahazten genituen eta gutako bakoitzari bizitzak jarri dizkigun balezten gainea, txandaka, aske mintzatzen ginen denok, Antton izan ezik.

Anttonek ez ninduen hasieratik liluratu: ez zen gizon berritsua, ez zuen aparteko graziarik berbetan eta ez zen limurtzen zintuen horietakoa. Kontrara, gustuko izaten zuen besteek esaten zutena edo genuena entzutea, eta bide batez, gure aurpegiek adierazten zutenari erreparatzea. Gutxitan hitz egiten zigun bere bizitzari buruz, nahiz eta guk hirurok lasai asko esaten genituen burutik pasatzen zitzaizkigun guztiak edo, sarritan, tokatzen zirenak baino dezente gehiago. Batzuetan, apur bat xaxatzen genuenean eta bata bestearen osteko galdera zuzenak egiten genizkionean, beti esaten zigun bizitza oso normala zeramala, gorabehera gutxikoa, ez zuela kontatzeko moduko ezer interesgarririk, astegunetan lanerako bizi zela eta asteburuetan paseo ederrak ematen zituela deskantsatzeko edo, lantzean behin, Bilbo inguruko herriren batera joaten zela asteburu pasa. Horretan bai, egiten zituen ibilbideen inguruan eta Euskal Herriko herrien kontura, horretan, luze egon zitekeen berbetan: hango parajeak goraipatzen eta herrietako xarma azpimarratzen. Guri harrigarria egiten zitzaigun zein sutsu aldarrikatzen zuen bere herriaren edertasuna eta zein harro sentitzen zen hangoa izateaz. Ematen zuen hango Turismo Sailak bidalitako ordezkari ordezkaezin bat genuela gure mahaian jesarrita, Ven y Cuéntalo leloaren sortzailea bera.

Ez nuen espero hainbeste leku eder ikustea eta ez nuen uste Euskal Herria gustagarria egingo zitzaidanik. Akaso, beste behin ere, topikoek eta aurreiritziek guztiz baldintzatuta zutelako buruan nuen irudia, halere, edozein modutan ere, ez nuen pentsatzen udako oporraldi bat egiteko moduko lekua izango zenik. Baina, tira, beste behin ere, planik gabe nengoen edo nire ingurukoen planetan ez nengoen ni sartuta, dagoeneko badakizue beste orbita bakarti batean nenbilela biraka, eta, argi nuen aurreko udakoa ez nuela, inolaz ere, errepikatu nahi. Ez nuen gogorik nire loba zoragarri guztiekin, nire neba-arrebekin, koinata-koinatuekin, gurasoekin eta batek daki nor gehiagorekin nire eguzki, hondartza eta itsaso-egunak konpartitzeko. Hortaz, Anttonek enegarren aldiz errepikatu zigunean Euskal Herria ezagutzera joan beharko genukeela, berak gustura asko erakutsiko zizkigula hango bazterrak eta seguru zegoela asebeteta bueltatuko ginela, edozein oporraldi aprobeztatu beharko genukeela lar planifikatu eta antolatu gabe, une horretan, birritan pentsatu gabe, hor, El Burlaredo jatetxean, postreak atera aurretik, eman nuen lehenengo urratsa, nahiz eta jakin banekien mahai-buelta berean nituen lankideei irribarre maltzur bat aterako zitzaiela.

Etxearen jabeak atea ireki zuenenean, espero ez genuen argitasun-uholde batek harrera beroa egin zigun eta, aldi berean, pare-parean zeuden leiho handietatik ikusten zen berdegune zabalak freskotasun paregabea oparitu zigun. Etxeko sareta guztiak goraino

zeuden altxatuta. Lehenengo begi-kolpean ematen zuen dekorazio-aldizkari batek bidalitako argazkilari baten aginduz dena zegoela apaindu berri. Dena zegoen txukun eta garbi, ordena zorrotzean. Ez zuen ematen etxe horretan inor ez zenik bizi; horregatik, gogoia izan nuen egongelako komoda bateko tiraderaren bat zabaltzeko eta berresteko etxea hustuta zegoela, benetan zegoela salgai, alegia, ez zegoela beheko harategian erosketa batzuk egin ostean agertuko zen ugazabaren baten arrastorik.

Etxearen jabeak egongelan hasi zuen bere bisita gidatua, handik alboko logelara, beste logela txikiago batera, komun eder eta izugarri moderno batera, logela printzipalera, beste komun txikiago batera, ametsetako sukalde zoragarri batera eta, berriz ere, egongelara. Anttonek ez zuen txintik ere esan bisita gidatuak iraun zuen bitartean, baina nabaritu nion gustuko zuela logela printzipaleko hormetako papera ukitzeko moduagatik eta komun modernoan zeuden ur-txorrotek sortu zioten jakin-minagatik. Nik, beti bezala, adierazgarriago jokatu nuen: logela zein komun bakoitza ikusi orduko, airean zabaldua zegoen nire ahotik ateratako ze polita! edo zein ederra! edo antzeko beste adierazpenen bat.

Etxearen jabeak bukatu zuenenean, irribarre egin zigun bere begi-zulo ilunetatik. Ez zen emakume lar heldua, baina arinegi zahartuta zegoela ematen zuen; nabari zitzaion tristura sakon batek zuela erabat suminduta. Ezin zuen ezkutatu. Sumatzen zitzaion etxea erakutsi bitartean, bi edo hiru aldiz, begiak itxi zituelako eta arnasa sakon hartu behar izan zuelako aurrera jarraitu ahal izateko. Logela printzipalean, pare bat malko irristatu zitzaizkion ohearen zabalera eta ohe-burua nondik ekarri zuten azaltzen zigun bitartean, eta, egongelara bueltatu ginenean, igarri genuen ez zela hitz egiteko gauza. Erabat errukituta sentitu nintzen. Eskua pausatu nion besoaren gainean. Isilik geratu ginen eta isilunearen astuna sentitu genuen hirurok. Barkamena eskatu zigun eta etxea bere ahizpa gaztearena zela aitortu zigun, ahizpa zortzi hilabete lehenago hil zela, nabaritzen zutela ez zebilela ondo, baina ez zutela pentsatzen hain gaizki egon zitekeenik, ahizpak ere ez ziela inoiz garbi adierazi zer gertatzen zitzaion nahiz eta egunero hitz egiten zuten telefonoz, denak eztanda egin zuen arte. Jarraitu zuen adierazten ilusio handiz erosi zuela etxea gurasoek utzitako diruari esker, eta xehetasunik txikiena ere zaindu zuela zoragarria izan zedin, handik eta hemendik ekarritako gauza dotoreekin bete zuela diruari erreparatu gabe, baina bizitzak, ordea, ez ziola eman berak bertan espero zuen zioritasuna. Bera zela zuen ahizpa bakarra eta urruti bizi baziren ere, estu eta bihotzez zeudela bat eginda. Horregatik, ez zela kapaz sentitzen etxetik ezertxo ere kentzeko; eta, horrexegatik, salduko zutela altzari eta guzti, etxea goitik behera jantzita.

Etxearen jabeak aho bete hortz utzi gintuen. Guri, une horretan, ez zitzaigun iruditu bidezkoa zenik etxearen salneurriaz hitz egitea edo etxea hobeto eta trankil ikusteko astia eskatzea. Nahiko genukeen prezioaren gainean hitz egitea, beste balizko eroslerik dagoen jakitea edo salmenta ixteko epea finkatzea, baina ez genuen jakin egoerari buelta ematen eta zalantza horiekin guztiekin alde egin genuen. Atarian, Anttonek esan zion egun gutxiren buruan deituko geniola eta, haren eskua samurki estutuz, eskertu zion gurekin izandako zintzotasuna. Andreari beste pare bat malko irristatu zitzaizkion masailetan behera, irribarre laburra eskaini zigun eta kaleko jende ezezagunaren artean nahastu zen tristura izugarria batzen zuen jaka grisa. Gu biok, kontrako bidetik eta bihotza uzkur-uzkur eginda, Anttonen apartamentu ilunera bueltatu ginen, isilean.

Etxearen jabeak berak hirugarren egunean deitu zigun goizean goiz. Guk nahastu samartuta jarraitzen genuen, baina etxea lasaiago ikusteko gogoa genuela adierazi genion eta arratsalde horretan bertan geratu ginen. Orduan ere, sareta guztiak goian zeuden, norbaitek gu heldu aurretik goraino altxatu izan balitu bezala. Etxearen jabeak bakarrik eta gure kaxa utzi gintuen, berak mandatu arin bat egiteko aitzakian. Bueltatu zenerako, argi genuen tratua itxi nahi genuela eta gure ametsetan irudikatutako etxea baino zatia ederragoa zela. Bai, kosta ala kosta, heldu behar genion parean suertatuko aukerari eta tolesdurarik gabe adierazi genion gure nahia. Jabea ere poztu zela iruditu zitzaigun eta lehenengo egunean baino irribarre luzeagoa erakutsi zigun. Hortik aurrerako guztia arina eta erraza izan zen, berak mina baino pizten ez zion etxea ahaztu nahi zuelako eta guk etxe zoragarri horren jabe zoriontsuak bihurtzeko irrikan geundelako.

-
- Egun on, zein pisutara zoaz?
 - Laugarrenera, mesedez
 - Ez zara zu izango gure bizilagun berria, ezta?
 - Bai, neu naiz. Duela hamabost bat egun etorri ginen eta pozarren gaude.
 - Bai, ez da harritzekoa! Maialenek etxe izugarri ederra jarri ei zuen, goitik behera berritu zuen eta etxean sartu zuen guztia dotorea baino dotoreagoa omen zen. Beno, nik hori entzun nuen, bere etxean ez nintzelako inoiz egon, ez pentsa!
 - Egia esan, izugarritzko zortea izan dugu! Denboratxoa pasatu dugu pisu egokia aurkitu nahian, asko eta asko ikusi ditugu, baina iragarkiarekin batera eskegita zeuden argazkiak ikusi genituenetik erabat maiteminduta gelditu ginen. Ez genuen zalantzarik txikiena ere

izan, hasieratik argi baino argiago eduki genuen hau bezalakorik ez gurela hiri osoan topatuko.

- Bada, beharbada ez! Beno, nik zer esango dizut, bada! Etxea egin zenetik bizi naiz hemen, nire seme-alabak hemen jaio eta hazi ziren eta, orain, alargunduta eta bakarrik ere hemen jarraitzen dut, zortzigarrenean; nahi duzunerako: Begoña.
- Eskerrik asko, Begoña. Ni Rocio naiz.
- Beno bada, pozten naiz zu ezagutu izanaz, Rocio. Ongi etorri eta ea zuk gure Maialen gaixoak baino zorte hobea duzun, baina, tira, ez da horretarako asko behar! Ea gehiago disfrutatzen duzun etxe eder hori.
- Bai, horretan ahalegintzeko asmoa dugu Anttonek eta biok.
- Hurrengo batera arte, Rocio.
- Bai, hurrengora arte.

Maialen Madariaga jarri nuen bilatzailean eta pantailan berehala azaldu zitzaidan bere eskela bat. Irudia nahikotxo handitu nuen eta astiro begiratu nion haren argazkiari. Etxearen nabearen, bere ahizpa Idoiaren, antz handia zuen, oso-oso antzekoak ziren, baina bere heriotzaren berri emateko erabili zuten argazkian Maialen irribarretsu, alai eta gazte agertzen zen. 44 urte. Gero, testua irakurtzen hasi nintzen: lehenengo, gurasoen izenak zetozen gurutze txiki bana bakoitzaren alboan; ondoren, Idoia eta Mikel Arrieta; bukatzeko, Lore, Martin eta Libe. Bikoterena baten izenik ez inon ageri.

Laburregia iruditu zitzaidan familiaren segida. Automatikoan, alderatu nituelako nire abuelo eta batez ere izenez toperaino beteta hil berri zen abuelaren eskelekin, nahiz eta banekien horiek beste sasoi bateko pertsonak zirela, beste bizimodu bat zeramutela eta beste harreman batzuk zituztela etxearekin zein auzokarekin. Nire balizko eskela batean ere pentsatu nuen, Maialenena baino luzeagoa irudikatu nuen batez ere, neba-arreba gehiago eta loba mordoa dudalako, baina nirea ere ez zela lar bete geratuko pentsatu nuen eta horrek min-zitada bat eragin zidan. Beste behin ere, ohiko txatxukerietan endredatzen ari nintzela konturatuta, ahalegindu nintzen burutazio antzu horiek uxatzen eta neure buruari esaten nahikoa zela, gaur eguneko bizitzaren isla baino ez zela begien aurrean nuen. Orduan, eskela txikitu nuenean, beste bat ere bazegoela konturatu nintzen eta beste bat zela aukeratutako argazkia. Horretan, aurrekoan baino irribarretsuago eta alaiago ikusten zen Maialen, eta testua lerro pare batera mugatzen zen: Gabriel Aresti institutuko zure lankideek ez zaituzte ahaztuko. Betiko gordeko zaitugu gure bihotzetan Ez adiorik. Ez nuenez ondo ulertu esaldiotan adierazi nahi izan zutena eta ordurako

jakin-minaren botoia norbaitek sakatu izan balit bezala aseegin sentitzen nintzenez, itzultzailearen laguntza behar izan nuen, eta Maps-ena jakiteko non zegoen aipatzen zuten institutu hura.

Ez ziren, baina, eskelak izan ikusi nituen bakarrik, ez zen hor bukatu kontua! Haien ostean, prentsa-artikuluak ere bazeuden eta gainetik begiratu nituen arren, erabat asaldatuta utzi ninduten. Ez nuen horrelakorik espero! Neure betiko inozotasunean, Maialenen heriotzaren arrazoiak minbizi zital edo antzeko gaixotasun bizkor bat izango zela pentsatu nuen eta ez letra larri irakurtzen ari nintzena. Bospasei artikulua topatu nituen eta horietako gehienetan ez zen argazkirik ageri; bakarrik batean, agertzen zen gure kale eta eraikinaren irudia zuri-beltzean, gure etxe dotorean eta zoragarrian hil zuelako bere bikotekideak Maialen. Zeharo larrituta utzi ninduen ikusitako guztiak, eta gehiago irakurtzeko gogo baina ez nuen. Den-dena jakiteko premia sentitzen nuen, Maialen hori nire lehengusina edo gertuko adiskide bat izango balitz bezala. Xehetasunak behar nituen, bihotza lasterketa bizian zebilkidan arren, erdi ondoezik eta izerdi hotzez blai sentitu nintzen arren eta goragalea etorri zitzaidan arren... Buruak, segitzeko agintzen zidan, bilaketan jarraitzeko, informazio gehiago biltzeko... baina zizko eginda utzi ninduen irakurritakoak, ezusteko handiegia izan zen niretzat eta ordenagailua utzi behar izan nuen zen. Beharbada, bihar edo etzi lasaiago irakurri ahal izango nituen aurkitutako artikulua. Bitartean, ikusitako guztiaren digestioa egiteko denbora eman behar nion neure buru abailduari.

Arratsaldeak iluntzera egin zuen nik berreskuratu ezin nuen mantsotasunarekin. Antton etxera heldu zen, baina ez nion aipatu zertan jardun nuen arratsalde osoan, bor-bor handiegia nuelako buruan, azalpen garbi bat ematea zaila egiten zitzaidalako, irakurritako guztia nahasia nuelako eta ez nuelako oraindik inor alferrik asaldatu nahi, pieza guztiak ordenan jarri arte. Anttonek ez zuen antzeman urduri nengoenik ezta normalean baino isilago nengoenik ere. Ohikoa ez bazen ere, berba eta berba egiteko gogoarekin etorri zen bera, pozaren etorri zelako lanean proposatu zioten proiektu berri baten kontura. Eskertu nuen Antton hain berritsu etorri izana, nik entzun baino ez nuelako egin behar izan eta burua ez nuelako beste ezertarako.

Gauean, oheratzerakoan, Anttonek musuz josi zuen nire bizkarra eta berarengana estu hurbildu ninduen gerrialdea inguratuta; nik, beti bezala, gustura hartu nituen haren maitasun-adierazpenak. Uste dut lasaitu nindutela eta, buelta emanda, bere aho hezea bilatu nuen, astiro dastatu eta haginkada txikiekin erantzun nion, eskuekin bere gorputzaren bide ezagunak jarraitzen nituen bitartean. Anttonek, askotan bezala, eskuturretatik heldu ninduen eta neure gainean jarri zen, mingainarekin jolastu zen neure kokotean hasita gora eta behera eta behera eta beherago... Nik begiak itxita, plazer uharte horretan baino ez nuen segi nahi, Anttonek zirri-

zarra gorputza miazkatzen zidan bitartean. Orduan, begiak zabaldu nituen eta, kolpean, argi eta garbi Maialenen aurpegia ikusi nuen niri begira, ahoa mugitzen zerbait esaten ariko balitzait bezala. Bat-batean, oihu mehe bat atera zitzaidan ezarritik, gorputza erabat zurrundu zitzaidan eta mesanotxeko argia pizteari ekin nion. Izerditan eta dardaraka hasi nintzen. Antton harrituta geratu zen. Nik ez nekien zer esan. Hark ez zekien zer egin. Nik bizkarrak krakada itzel bat egin zidala asmatu nuen. Berak nire gezur aldrebasa sinetsi omen zuen. Nik gau osoan Maialenekin amesgaiztoak eduki nituen eta Anttonek gozo itxuran egin zuen lo.

Ordutik, ez nuen beste pentsamendurik izaten. Maialenek betetzen zuen nire gogoa eta egitekoa. Prentsa-artikuluak letraz letra irakurri nituen, lanlekua non zegoen eta nolakoa zen ikustera joan nintzen, hango atezainari Maialenen galdera egin nion, Euskara irakaslea zela eta institutura oinez etortzen zela egunero jakin nuen, kideen artean maitatua zela eta ikasleen artean errespetatua zela esan zidan, zoriontsua zela ematen zuela, baina... Harrezkeroztik, Maialenek egin zezakeen bidea etxetik institutura bihurtu zen nire eguneroko paseoa, Uribitarte aldera edo Olabeaga ingurura joateari utzi nion, lasaitu egiten ninduelako ibilbide bera egiten genuela pentsatzeak berak.

Haren ahizpari deitzea ere pentsatu nuen. Birritan telefonoz hots egiteko bulkada eduki nuen, baina bietan ez nintzen ausartu ez nekielako nondik hasi eta zer galdetu nahi nion, nahiz eta gauza asko jakin nahi nituen. Aitortu nahi nion, batzuetan, pentsatzen nuela engainatu gintuela pisua erakutsi zigunean eta ez zuela gurekin garbi jokatu. Nire iritzian, bazen aipatzeko moduko kontu bat jakitea han, etxe horretan bertan, bere ahizpa hil zuela bere bikotekideak, ez zen garrantzi gabeko kontu bat. Beharbada, hori jakinda, nik, behintzat, ez dakit etxea erosteko urratsa emango nuenik, oso kontu gogorra zela uste nuen, lar gogorra niretzat. Kezka horiekin guztiekin burua erabat korapilatuta sentitzen nuen, horren harira, neure buruari galdetzen nion zer egiten ote zen norbait erail ostean etxe horiekin: garbitu, margotu eta kito? Besterik gabe, saldu? Pintura geruza batek han gertatutako beldur eta min guztia estaltzen zuen betiko? Pareta horien artean gertatutakoa erre-usainaren moduan desagertzen zen leihoak zabaldu ostean eta saretak goian utzita? Galderak emendatzen zitzaizkidan, baina, ondo pentsatuta, ez zitzaidan iruditzen Maialenen ahizpa horiek guztiak erantzuteko moduan egongo zenik.

Egun batean, hasten eta hasten neukan ezinegon itzel batek bultzatuta, Anttonek goizean goiz lanera alde egiten zuenean, minututik galdu gabe, etxeko bazterrak miatzen hasten nintzen, gure logelako ohe azpia behin eta berriro arakatzen ibili nintzen, etxeko alfonbra guztiak altxatzen, egongelako sofa erdiratzen, komoda handia mugitzen ... jakin behar nuelako non, zein lekutan, zein gelatan, zein egur-xaflaren edo baldosaren gainean gertatu zen erailketa. Aurkitu

nahi nuen odol-arrastoren bat, mantxa susmagarriren bat edo zeozer aditzera emango zidana non gertatu zitzaion hori Maialeni, baina ez nuen ezertxo ere topatzen. Izan ere, prentsa-artikuluetan ez zuten horrelako xehetasun makabrorik aipatzen, bere ahizpari galdetzea ez zitzaidan oso bidezkoa iruditzen eta Ertzaintzaren polizia-etxe batean hasten banintzen holako zerbait galdetzen badakit zorotzat hartuko nindutela eta sumarioaren gaineko informaziorik ezin zidatela eman irmoki azpimarratuko zidatela. Dena den, guztiz arraro egiten zitzaidan orban txiki bat ez topatzea inon. Akaso, eraiketa-telesail gehiegi ikusi nuelako sasoi batean edo nobela beltza baino ez nuelako irakurtzen, hor niharduen jo ta fuego zerbait hori zer izan zitekeen argitu gabe.

Hiru egun neramatzan bilaketa sutsuan, goizetan etxe guztia hankaz gora jartzen eta iluntzeetan hala-moduzko ordenan jartzen, baina batere arrakastarik eduki gabe, Anttonek ezustean harrapatu ninduen arte: lurrean luze etzanda eta gure ohe-burua eusten zuten torloju potoloak askatu nahian. Konturatu ere ez nintzen egin zenbat denbora zerman inguruari eta niri begira, harik eta Zertan zabiltza, Rocío? Zoratu zara? Burua galdu duzu? entzun nuen arte.

Beste hiru egun eman genituen haserre. Anttonek ez zidan hitz erdirik egiten eta nik ez nekien zer egin urak bere bidera etor zitezen. Erdi damututa nengoen edo, gutxienez, penatuta, eta, bai, arrazoi zuen berak, seguruenik berari ere kontatu beharko niokeen Maialenen gaineko guztia, neure kontura hasi aurretik, balizko CSI Bilbo-ko kide neure burua izendatu aurretik eta bide batez etxea zizko eginda laga baino lehen. Baina ez nuen nahi Anttonek ezer arrarorik pentsatzerik, are gutxiago nire izaera paranoiko samarra izan zitekeenik. Ez orain, behintzat.

Pisua erosi genuenetik ilusioz beteta sentitzen nintzen, alai eta baikor. Uste dut bion artean etxea erosteak on egin ziola gure harremanari, lotuago geundela iruditzen zitzaidalako eta, aldi berean, gure artekoa orekatuago zegoelako. Izan ere, nik dena utzi nuen Bilbora etorri nintzenean: ez neukan etxerik, lanik, lagunik, familiarik... eta poliki-poliki nire bizitzaren erdigunea Antton bihurtu zen; berak, ordea, ez zuen ezer utzi, bere bizitzarekin jarraitzen zuen eta ni beste zerbait baino ez nintzen. Horrez gain, Bilbora etorri berritan, sentitzen nuen zama nintzela berarentzat buruhauste gehiegi ematen nizkiolako nire tristura, hutsune eta etengabeko gorabeherekin. Amorrutza ematen zidan horrela egoteak, ez nuelako neure burua ezagutzen eta Antton gero eta urrutiago sentitzen nuelako, baina ez nintzen egoera iraultzeko gauza. Gainera, ezin nuen nire barrua inorekin hustu, horregatik mataza gero eta handiagoa eta katramilatuagoa egiten ari zitzaidan barruan. Esan gabe doa nire hango lagunei, lankide ohiei edota familiakoei ez niela horretaz ezer esaten eta adierazten niena zen gertatzen zitzaidanaren kontrakoa: uraren gaineko aparrean bizi ginela.

Tristuraren gailurrera heltzen nengoenean, orduan ikusi nuen zorioneko iragarkia. Pisua erosteak ekarri zuen goizetik gauera egokitzen-fasea gainditzea eta ni neu neure onera etortzea. Anttonek ere arin aldatu zuen nirekiko jarrera, lehenago heltzen zen etxera, laneko kontuen berri ematen zidan, afaria elkarrekin prestatzen genuen, astebururako planak proposatzen zizkidan eta, batzuetan, lehen bezala begiratzen zidan: jainkosa zerutiar hura bezala.

Ez nuen atzera egin nahi. Horregatik, amore eman nuen. Onartu nuen berak esan zidan guztia eta kontu beltz hori betiko ahaztuko nuela irmo agindu nion, zeharo konbentzita egongo banintz bezala. Anttonek neure bizitza berrantolatzeke ahalegina egin behar nuela esan zidan, gogor ekin behar niola lana bilatzeari eta horrela ez nintzela hain ezer gabe sentituko. Arrazoirik ez zitzaion falta eta, zailtza izpirik gabe, horixe zen behar nuena. Hortaz, curriculum eguneratu nuen eta lana bilatzeko atarietan eskaintzak arakatzen hasi nintzen. Banekien egun batetik bestera ez nuela aurkituko nahi nuena eta, Anttoni ezusteko pozgarri bat eman nahian, euskaltegi batean izena ematea etorri zitzaidan burura. Banekien Euskara ikasten jarduteak egundoko poza emango ziola, lagunduko zidala, zer egiten genuen jakin nahi izango zuela eta batez ere, nitaz harro egongo zela. Gertu samar zegoen euskaltegi bat bilatzen hasi nintzenean, batek Maialenen institutuaren izen bera zuela ikusi nuen: Gabriel Aresti eta, beste ezer pentsatu gabe, hurrengo goizean bertan eman nuen izena.

Espero baino lehen, lanean hasi nintzen. Pozarren hasi ere, lana erraz menperatzeko ustea nuelako, nire adin-bueltako lankideak nituelako eta primerako harrera egin zidatelako, soldata duina edukiko nuelako, joan-etorriak Metrotan egin nitzakeelako eta seietatik zortzietara euskaltegira joateko nasai ibiliko nintzelako. Kontua da mutur batetik bestera pasatu nintzela: eguna erabat libre izatetik total beteta edukitzera pasatu nintzen; lantzean behin, lankideekin geratzen nintzen zerbait hartzen eta euskaltegikoekin ere bai. Antton eta biok ordu bertsuan heltzen ginen etxera eta elkarri kontatzen genizkion egunean izandako gorabeherak zein garrantzirik gabeko pasadizoak. Nekatuta heltzen ginen, baina amestutako bizitzan geunden; ez zitzaigun ezer falta eta zorionaren hodei zuri eta prefektu hori atzamar-puntekin ukitzen geundela iruditzen zitzaigun.

Dena den, hodei zuriko zeru urdinetan ere, noizean behin, hodei beltzak ibiltzen dira eta nirean arinegi sortu ziren. Gau askotan, Maialen gailentzen zitzaidalako amesgaizto bihurtuta; gehienetan, xuxurlaka agertzen zitzaidan zerbait esan nahi izango balit bezala eta, halakoetan, izerdiz blai esnatzen nintzen. Anttoni, jakina, ez nion aitortu nahi izaten Maialenek jarraitzen zuela neure pentsamenduan, baina hor zegoen. Izan ere, euskaltegira sartzen nintzen bakoitzean eta Gabriel Aresti irakurtzen nuenetan, Maialenen institutua etortzen zitzaidan burura eta

antzematen nuen hari ikusezin batek biok estu-estu lotzen gintuela. Gainera, hori gutxi balitz, egun batean, taldeko irakasleak, Itziarrek, euskaltegiaren eguna ospatzeko Arestiren bideo bat jarri zigun eta ondoren azaldu zigun nor izan zen, zer egin zuen euskararen alde eta zelan ikusten zuen orduko euskal kultura. Horren ostean, Itziarrek aukeratutako olerki batzuk irakurri genituen haren laguntzaz, Nire aitaren etxea defendatuko dut/ otsoen kontra... eta gero, Jainkoak eztezala nahi Bilbaoko karrika bati/ nire izenik eman diezaiotela... Liluratuta geratu nintzen euskaldun berria izan zela jakitean eta deigarriak egin zitzaizkidan haren kemena eta indarra bere ideiak defendatzeko orduan.

Gauean, nola ez, Itziarrek irakatsi zigun guztia errepikatu nion Anttoni eta olerkiak irakurri nizkion. Harrigarria bazen ere, berak ezer gutxi zekien Arestiren gainean eta poemak ere ez zituen ezagutzen; gogotik egin genuen barre horren kontura eta adarra jotzen ibili nintzaion bere euskalduntasun herdoilduaren kontura.

Hurrengo gauean, Arestiren olerkien liburu bat (edizio elebiduna) ekarri zidan Anttonek opari. Izugarri eskertu nion liburua bilatu eta ekarri izana eta, ohean, bere bizitzaren gaineko hitzaurre osoa irentsi nuen eta olerki batzuk gaineratik irakurri nituen, Jainkoak eztezala nahi Bilboko karrika bati/ nire izena jar diezaiotela... ere aurkitu nuen eta liburua esku artean nuela lo geratu omen nintzen. Goizaldean, beste behin ere, Maialenen xuxurlekin esnatu nintzen. Goizean, nekatuta joan nintzen lanera. Arratsaldean, Itziarri liburua erakutsi nion eta Arestiren gaineko klaseak hunkitu ninduela adierazi nion. Etxerako bidean, kaleen izenei erreparatzen ibili nintzen, banan-banan irakurtzen, nor izango ziren eta zergatik jarriko zizkieten haien izenak kaleei neure buruari galdetzen hasi nintzen. Gehienak gizonezkoen izenak ziren eta... bat-batean, argia egin zitzaidan.

Uste baino gutxiago kosta zitzaidan sinadura-kopuru itzel hura batzea. Hasieran, ezinezkoa iruditu zitzaidan arren, proba egitea erabaki nuen. Lehenengo eta behin, sinadura eskatzeko arrazoia bost lerroko paragrafo batean laburbildu nuen eta horixe jarri nuen orri guztien goiburuan. Bertan argi uzten nuen ez niola inori kalearen izena kendu nahi, baina Bilboko Udalari eskatzen nion eta genion eraildako emakume bakoitzak hil zuten kalean bertan plaka more bat jartzea ohiko plaka urdinaren ondoan, bilbotar guztiok kontzientzia biztuago eta biziago edukitzeko. Gero, nire lankide guztiei azaldu nien buruan nerabilena eta banatu nien orri-sorta bana euren lagun eta ezagunei, ados egonez gero, sinadura eskatzeko. Gauza bera egin nuen euskaltegi taldekideekin eta Itziarrek beste irakasle guztiei ere azalduko eta pasatuko zizkiela orriak esan zidan. Ondoren, nire auzoko talde feministarekin kontaktuan jarri nintzen eta gogotsu hartu zuten nire ekimena; hain iruditu zitzaien ideia ona non hiriko beste talde feministen artean zabaltzeko baimena eskatu zidaten. Sinestezin! Total, ale txiki baten tamainako ideia batetik

milaka sinadura bildu zituen ekimen bat izatera pasatu zela pare bat hilabetea. Harrituta nengoen gainezka egin zidan jendearen erantzunarekin; beraz, bukatzeko, horiekin guztiekin Udaletxeko Berdintasunaren aldeko arduradunari gutun bat bidali nion non helarazi nion nire ekimenaren nondik norakoa eta bilduta nuen sinadura-kopurua.

Anttonek sumatzen zuen saltsaren batean egon behar nuela sartuta, baina ez zidan zuzenean ezer galdetzen. Ikusten ninduen lanez gainezka eta inora iritsi ezinik, mezuak erantzuten berandura arte gelditzen nintzela, ordenagailuaren aurrean orduak eta orduak pasatzen zitzaizkidala, asteburuetan ez nuela inora irten nahi izaten eta arrazoi sinesgaitzak jartzen nizkiola aitzakia... Anttonek behatu egiten ninduen eta ni behatuta sentitzen nintzen, baina azaltzen banion zertan nenbilen seguru nengoen lehen baino gehiago haserretuko zela nirekin. Horrek asko estutzen ninduen, baina ezin nuen atzera egin, jende gehiegi zegoen inplikaturik, nik inplikatu nituen. Eta, halako batean, gertatu zen gertatu behar zena: galdutako paper batzuk bilatzen ari zela, sinadurak biltzeko orri piloak aurkitu zituela. Etxera heldu nintzenean, zuen aurpegia ikustean bakarrik, jakin nuen gertatu zena. Azalpen nahasiak eman nizkion. Dena bere horretan uzteko erregutu zidan, gure zoriontasuna apurtzen ari nintzela leporatu zidan, burutazio arraro horiek ahaztu behar nituela eta normal bizitzen ikasteko sasoia zela. Entzun egin nion, baina ezin nion amore eman, ordea. Kosta ala kosta aurrera egin behar nuen. Anttonek errepikatzen zidan ez zuela ezer ulertzen, zer gehiago behar nuen, zergatik sartzen nintzen holako kontu soroetan, zer nezesidade nuen... Egun horretan, baina, banekien aukeratutako bideak ez zuela bueltarik eta isiltasuna izan zen nire erantzuna. Berak, nire jarrera ikusita, burua makurtu zuen eta arropa batzuk maletan hartuta, etxetik alde egin zuen.

Inoiz baino lehenago altxatu nintzen ohetik, nahiz eta egun horretan ez nintzen lanera joango. Egun librea eskatu nuen trankil egoteko, zeharo urduri nengoen arren. Nik ez nuen ezer egin behar ezta esan ere, jendearen artean beste bat izango nintzen eta ez nuen inongo protagonismorik edukiko. Udaletxeko Berdintasunaren aldeko arduradunak hasiera emango zion ekitaldiari genero-indarkeriaren kontrako aldarrikapen labur batekin; gero, alkateak berak azalduko zuen Bilboko Udaletxeak herritar baten ekimena aintzat hartu ondoren, kaleak izendatzeko ohiko plaken ondoan plaka moreak jarriko zituela erailketak gertatutako lekuetan, herriak ez ditzan ahaztu emakume horiek guztiak. Bukatzeko, Maialenen ahizpak, Idoiak, eskerrak emango zizkien Bilboko Udaletxeko guztiei eta han, gure etxe azpian, bildutako guztiei.

Xumea baina hunkigarria izan zen kaleko ekitaldia, ehun bat lagun elkartu ginen eta gutako asko sentitu ginen asebeteta prozesuan izandako inplikazioarekin. Ametsetan ere, ez nuen pentsatuko olerki bat irakurtzetik sortutako ideia bat errealitate bihurtuko zenik, eta are gutxiago

hirian zabalduz joango zenik. Ni zoriontsu nengoen, nire laneko zein euskaltegiko kideen artean. Gainera, dena bukatu zenean eta bildutakoak sakabanatzen hasi zirenean, Idoia hurbildu zitzaidan, malkoz betetako bere begi tristeekin esker mutuak eman zizkidan, gogor besarkatu ninduen eta Maialen, orain, lasaiago egongo da esanez alde egin zuen. Maialenen plaka moreari begira gelditu nintzen. Azkenik, bazuen merezi zuen lekua, gure etxearen atariaren ondoan. Orduan, atariko atea zabaltzeko nengoenean, Zorionak, Rocío entzun nuen.

Neure burutazioetan murgildurik harrapatu ninduen Anttonek eta ez nuen asmatu bat-bateko horretan zer esan, etxetik alde egin zuenetik ez nuelako ikusi eta ez nuelako bera han inguruan espero. Kafe bat hartzeko astirik ote nuen galdetu zidan eta betiko aitzakia desordenatuak jartzen hasi nintzaion, baina ekin eta ekin egin zuen eta, oraindik ezetz esaten ez dudanez guztiz ikasi, konturatu nintzenerako etxe ondoko taberna berrirantz gindoazen. Ez zuen minutu erdirik alferrik galdu, Anttonek denborari etekina ateratzen maisu izan delako beti eta, bere horretan, harira joan zen: lehenengo eta behin, barkamena eskatu nahi zidala, nirekin bueltatu nahi zuela, banatuta emandako denbora grisa eta hotza egin zitzaiola, ezberdinak garela eta ezberdin jokatzen dugula, barneratu duela ezin nauela bere manierara eta bere nahietara moldatu, Maialenen kontua ez zuela hasieratik ondo ulertu, baina lortutakoa ikusita nitaz eta nire indarraz zeharo harro sentitzen zela, ez zekiela nola hurbildu hori guztia esateko, egunak pasatzen zitzaizkiola urratsik eman gabe, lotsatu baino ez zela egiten hain jarrera tematia eta koldarra izateaz eta batez ere zoro baten modura tratatu izanaz.

Gustura entzun nituen Anttonen lausenguak eta barkamenerako erabili zuen hitz-segida luzea. Horregatik, bakarriketan utzi nuen, jakinda izugarrizko ahalegina egiten ari zela, baina zer demontre! esan behar izan nion neure buruari; nik ere hamaikatxo ahalegin egin nituen hiri arrotz eta ezezagun honetara egokitzeke, eta ez dut gogoan Anttonek aparteko penarik sentitzen zuenik! Atzera egin zuen nire memoriak eta oztopo bat baino gehiagorekin egin zuen topo: bakardadea, tristura, etxea, Maialen, gu, euskaltegia, sinadurak, proposamena eta ekitaldia. Harro egon nintekeela sentitu nuen eta pentsatu nuen ezin nuela gertatutako ezer ahaztu neure duintasuna zaindu nahi banuen. Anttonek, dagoeneko, entzuten ez nituen berbak eta berbak esaten jarraitzen zuen eta niri irribarre txiki bat atera zitzaidan; ez zen, ordea, Anttoni zuzendutakoa baizik eta neure buruari. Nire buruko makineria martxan jarri zen izugarrizko abiaduran. Idatzi egingo nuen, nik ezertxo ere ez ahazteko, beste emakume batzuek irakurtzeko, eta batez ere inork ez dezan emakumeon kemena zorotasunarekin nahastu, edo, are okerragoa, plaka more berririk ez jartzeko. Pozik nengoen eta neure artean pentsatu nuen nola hasi ahal zen zorioneko kontakizuna:

- Barkatu, Antton. Badakit ez duzula nahi izaten lanorduetan deitzerik, baina ez dakizu zer aurkitu dudan! Uste dut bilatzen ari garena, azkenik, topatu dudala! ...